

MATRIKULA LIBREA. 2011-2012 ikasturtea

Matrikula hau azterketa egiteko baino ez da

Hezkuntza Sailburuordetzaren 2011ko abenduaren 19ko ebazpenaren arabera, matrikula egin ahal izateko baldintzak hauexek dira (www.eoidurango.net web-orrian ere ikusgai):

- **ADINA:** 16 urte beteta izatea 2012ko abenduaren 31 baino lehen.
- **DEITUTAKO PROBAK:** Hizkuntza bakoitzeko maila baterako baino ezin izango da matrikula egin.
 - Euskara: A2, B1 eta B2.
 - Alemana, Frantsesa, Ingelesa: A2, B1, B2 eta C1.
- **Oharrak:**
 - Azterketetan deialdi bakarra egongo da hizkuntza eta maila bakoitzeko, egutegian ikus daitekeen modura.
 - Ikasturte berean ikasle bat ezin da matrikulatu ofizial modura eta libre modura hizkuntza berean.
- **EPEA:** Otsailaren 10etik martxoaren 1era 15:00ak arte.
- **PROZEDURA:** Internet bidez baino ezin izango da egin matrikula. Horretarako, web-orri hauek dituzue: www.eoidurango.net edota www.eoieuskadi.net.
Nahi duenak Administrazioan ordenadore bat bere esku izango du matrikula egiteko.
- **PREZIO PUBLIKOAK (tasak):** 34,34 € hizkuntza bakoitzeko.
- **ORDAINKETA:** Matrikula egiteko jarraibideak jarraitu Interneten. Ez da dirurik bueltatuko, ordainketa oker eginez gero.
- **ONARTUEN ZERRENDAK:**
 - Behin-behinekoak: martxoaren 12an.
 - Behin-betikoak: martxoaren 28an.
- **PROGRAMAK, BIBLIOGRAFIAK, AZTERKETEN DESKRIBAPENA, ETA ATAZA EREDUAK**
Kontsultatzeko web-orri hauek dituzue: www.eoidurango.net edota www.eoieuskadi.net
- **BALIOKIDETASUNAK:** Plan zaharraren eta berriaren artean ondorengo baliokidetasunak onartu dira. Beraz, ezin da maila bereko azterketarik egin berriro:
 - 2. maila= oinarrizko maila (A2)
 - 3. maila, oinarrizko zikloa = Tarteko maila (B1)
- **AZTERKETA EGUTEGIA** (Deialdi bakarra)

	ALEMANA	EUSKARA	FRANTSESA	INGELESA
A2 Oinarrizko maila	Ekainak 12	Ekainak 5	Ekainak 11	Ekainak 4
B1 Tarteko maila	Ekainak 12	Maiatzak 30	Ekainak 11	Ekainak 1
B2 Goi maila	Ekainak 12	Maiatzak 25	Ekainak 11	Maiatzak 31
C1 Gaitasun maila	Ekainak 12	-----	Ekainak 11	Ekainak 4

Oharra: Ikasleak azterketa nahitaez egin beharko du matrikulatu den eskolan. Azterketen egutegi zehaztua (eguna, ordua eta gela) Eskolako behe-solairuko kristaletan eta www.eoidurango.net web-orrian jarriko da ikusgai.

Durango, 2012ko urtarrilaren 25ean